

2 de marzo: Manifestación sindical frente a la siniestralidad



**PREKARIETATEA
HILTZAILEA
LAN ISTRIPU
GEHIAGORIK EZ!**

MANIFESTAZIOA

MARTXOAK 2 de MARZO

12:00 Plaza de la Cruz

IRUÑEA - PAMPLONA

ELA • LAB • ESK • STEILAS • EHNE • HIRU • CGT

PREKARIETATEA HILTZAILEA LAN ISTRIPU GEHIAGORIK EZ!

Urte hasiera honetan, lan ezbeharren egoerak nabarmen txarrera egin duela salatu nahi dugu. Izan ere, Nafarroan 13 langile hil ziren 2016an lan istripu baten ondorioz. Aurten dagoeneko bi lan istripu hilgarri daramatzagu. 2016an lan istripuen kopurua %10 hazi zen Nafarroan eta langile bat gehiago hil zen aurreko urtearekin alderatuta. 2017an zenbakiak goranzko joera daramate era berean.

- Askotan salatu dugu **estatistika ofizialek ez dutela errealitatea islatzen**, istripu ugari ez dituztelako lan istripu gisa sailkatzen. Bestalde, lan harremanetan hedatzen ari den prekarietatearen ondorioz lan ezbeharren gero eta zati handiagoa ezkutuan geratzen ari da. Askotan, enpresariak dira istripu hauek estaltzen dituztenak edo beste batzuetan, langileak dira istripuak komunikatzen ez dituztenak, ziurgabetasun egoeran daudelako.

- Gai hau **arazo sozial larria** bihurtu da, izan ere, **prekarietatea, enpleguaren kalitate eskasa** eta prebentzio neurri egokiak ez hartzea dira lan istripu eta gaixotasunen oinarrian dauden egiturazko arrazoiak: azpikontratazioa, aldi baterakotasuna, kontratu partzialak, lan erritmo biziak, formakuntza eza... Larriena dena da, honen atzean dagoen zio bakarra enpresen diru gosea dela, lan kosteak murriztu eta irabazi tasak mantentzeko sakontzen da prekarietatean eta ez dira prebentzio neurriak hartzen. Salbuespenak salbuespen, Nafarroako enpresak urruti daude egiazko prebentzio kultura batetik. Ondorioz patronala da nafar langileari ordaintzen duen prezio altuaren erantzule nagusia.

- Azkenaldian erakundeetatik egiten diguten **irakurketa da lan istripuen gorakada jarduera ekonomikoa haztearen ondorioa dela**. Baieztapen hau onartezina da erakunde publikoen ahotik etorrira. Lan arriskuen prebentzioan behar diren neurriak hartuz gero eta sortutako enplegua kalitatezkoa balitz, lan ezbeharrez ez lukete zertan igo behar. Ez dutena esaten da azken urteotan Nafarroako Gobernuak lan osasunera bideratutako **gastu publikoa murriztu** egin duela.

- Bestalde, urtetan zehar dirutza publikoa bideratu da UGT, CCOO eta CENen txiringoetara, ustez lan prebentzioa egiteko. Alabaina, inoiz horren eraginkortasuna aztertu ez bada ere, azken hamarkadako bilakaera ikusita argi eta garbi esan dezakegu hutsaren hurrengoa izan dela.

ZER ESKATZEN DIOGU NAFARROAKO GOBERNUARI?

a) **Enplegu duina eta kalitatezkoa sortzea**. Osasuna bermatuko duen enplegua sortzeko eta prekarietatea ezabatzeko enplegu politikak aldarrikatzen ditugu. Horretarako ezinbestekoa da lan erreforma bertan behera utzi eta Nafarroan bestelako lan harreman eta babes sozialerako eredu bat ezartzea.

b) **Lan osasun politikak errotik aldatzea**, horretarako Lan Osasuneko Nafarroako Zerbitzuan baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak handituz.

d) **Enpresen gaineko kontrola, ikuskaritza eta zehapen eredugarriak** areagotzea.

e) **Lanbide-gaixotasunei beharrezkoa duten zentraltasuna ematea lan osasun politketan.**

f) **Lan Osasunarekiko arreta mutuetatik osasungintza publikora pasatzea, mutuek istripuak ezkutatu eta tratamenduak azkartzen baitituzte Patronalaren zerbitzura.**

Lan egiteagatik 13 hildako egotea eskandalu bat da, istripurik gehienak prebentzio neurri egokiekin ekidin zitezkeenean. CENek ez du arazo honi buruz ezer jakin nahi. Bera da erantzule nagusia.

Nafarroako Parlamentuan hainbat mozio eta adierazpen instituzional onartu dira, lan istripuak salatu eta biktimekiko elkartasuna adieraziz. Era berean, Nafarroako Gobernuari dei egin dio honen inguruan neurriak har ditzan. Baina ez dirudi lan osasuna Gobernuaren lehen tasuna denik. Horrela izan dadin exijitzen dugu. Nafarroako Gobernuari exijitzen diogu berehala neurriak har ditzan, arazo sozial larri honi irtenbidea emateko.

MANIFESTAZIOA
Martxoak 2
IRUÑEA
12.00etan
Gurutze Plazatik

ELA • LAB • ESK • STEILAS • EHNE • HIRU • CGT

PREKARIETATEA HILTZAILEA LAN ISTRIPU GEHIAGORIK EZ!

A pocos meses de empezar el año, queremos denunciar el notable agravamiento de la siniestralidad laboral. En Navarra 13 personas perdieron la vida en el trabajo en 2016. En 2017 ya son dos las personas fallecidas como consecuencia de un accidente de trabajo.

Los números siguen una tónica ascendente. El número de accidentes totales aumentó en un 10% en 2016 respecto al año anterior. Los fallecidos fueron uno más.

- Aun así hay que manejar estos datos con precaución, ya que como hemos denunciado repetidamente **las estadísticas oficiales no reflejan la realidad**, debido a que muchos siniestros no se catalogan como accidentes laborales. Por otro lado, son cada vez más los accidentes que se ocultan como consecuencia de la precariedad generalizada en las relaciones laborales. Las propias empresas ocultan muchas veces el accidente o esconden la gravedad de los mismos catalogándolos como leves, con la ayuda de las mutuas patronales.

- La siniestralidad laboral es, por tanto, **un problema social de primer orden. La precariedad, la escasa calidad del empleo y la falta de medidas preventivas adecuadas se cuentan entre los principales motivos estructurales de los accidentes y enfermedades laborales.** Ejemplo de ello son la subcontratación, la temporalidad, los contratos a tiempo parcial, los ritmos elevados, la falta de formación... De todas maneras, todos los motivos citados tienen un denominador común: la codicia de las empresas. Su afán de reducir costes y aumentar ganancias les lleva a tocar fondo en todas las formas de precariedad y a no adaptar medidas de prevención. Salvo contadas excepciones, las empresas de Navarra se encuentran todavía lejos de una verdadera cultura de la prevención, por lo que son las principales responsables del alto precio que en salud paga la clase trabajadora navarra

- Una **lectura que suele hacerse últimamente desde las instituciones** es que el aumento de accidentes laborales se debe al repunte de la actividad económica. Una afirmación así proveniente de las instituciones públicas resulta **inaceptable**. Si se tomaran las medidas adecuadas de prevención de accidentes, y si el empleo que se crea fuera de calidad, no habría razón para el aumento de la siniestralidad laboral. Ocultan que el Gobierno de Navarra **ha venido recortando el gasto público** destinado a la salud laboral.

- Por otro lado, durante años se ha potenciado la derivación de dinero público a diversos chiringuitos formados en exclusiva por UGT, CCOO y CEN para supuestamente intervenir en prevención de riesgos. Nunca se ha valorado el impacto y la efectividad de las iniciativas realizadas por los mismos, aunque viendo la evolución de la siniestralidad en la última década, podemos decir que su aportación a la mejora de la prevención y buenas condiciones de trabajo ha sido nula.

NUESTRAS DEMANDAS AL GOBIERNO DE NAVARRA

a) **Condiciones laborales dignas y de calidad.** Reivindicamos políticas de empleo que coadyuven al mantenimiento de la salud y a la erradicación de la precariedad. Para ello es imprescindible desactivar la reforma laboral y constituir otro modelo de relaciones laborales y protección social en Navarra.

b) **Cambio radical de las políticas de salud laboral.** Para ello, solicitamos una mayor provisión de recursos humanos y económicos en el Servicio de Salud Laboral de Navarra.

c) **Mejor ejercicio del control, inspección y sanción ejemplarizante sobre las empresas.**

d) **Dar la centralidad necesaria a las enfermedades profesionales en las políticas de salud pública.**

e) **Sustituir a las mutuas por la sanidad pública en la atención de los daños a la salud de trabajadores y trabajadoras,** ya que las mutuas ocultan accidentes y aceleran tratamientos en base a los intereses de la Patronal.

Llegar a tener 13 fallecimientos en un año por causas laborales es un escándalo, cuando la mayoría de ellos se podía haber evitado con medidas de prevención efectivas. La CEN, principal responsable de esta realidad, no quiere saber nada del asunto.

En el Parlamento de Navarra se han aprobado diferentes mociones y declaraciones institucionales en denuncia de los accidentes laborales y en solidaridad con las víctimas. También se ha instado al Gobierno de Navarra a tomar medidas en esta materia. Sin embargo, no parece que la salud laboral sea una prioridad para el Gobierno. Exigimos que lo sea. Exigimos al Gobierno de Navarra que tome medidas inmediatamente para atajar este grave problema social.

MANIFESTACIÓN

2 de marzo

PAMPLONA

A las 12.00h

Plaza de la Cruz

ELA • LAB • ESK • STEILAS • EHNE • HIRU • CGT